

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak monolito batekin gogoratu ditu Torreroko hilerrian 1936an Zaragozan fusilatutako biktimak

*Eraildako pertsonen senitartekoek emandako "bizitzaren lezioa"
nabarmendu du Olo kontseilariak aitortenezko ekitaldian*

Larunbata, 2018.eko urriak 27

Torreroko (Zaragoza)
hilerrian finkaturiko monolito
batek, 1936ko kolpe militarren
hasierako hilabeteetan
Aragoiko hiriburuaren ondoko
San Gregorio eremuan fusilatu
eta Torreroko hobi komun
batean lurperatu zituzten
Sanjurjo Tertzioari atxikitako
Nafarroako 200 biktimak
gogoratuko ditu gaurtik aurrera.

Eskulturaren
estalgabeteza Ana Olo,
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria buru izan
duen aitortenezko ekitaldi batean egin da, Foru Komunitateko erakunde
nagusiek bultzatuta: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentua eta
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Zaragozako Udalak ere parte
hartu du.

Jendaurreko agerraldian, Olo kontseilariak esan du ekitaldiaren
helburua ez dela soilik "bidegabeko eta justifikaziorik gabeko indarkeria"
jasan zuten biktimen memoria berreskuratzea. Horrekin batera, haien
senitartekoen "lana eta konpromisoa" aldarrikatzea du helburu, izan ere,
jada 40 urte, gorpuzkiak hilobietatik ateratzea lortu zuten

. Orduko ahalegina, kontseilariaren iritziz, "giltzarritzakoa izan zen memoria,
egia eta justiziaren erreibindikazioan, eta urte gehiegiz sostengu
instituzionalik gabe egindako bide luze, gogor eta nekezaren buruan,
gaurkoa bezalako ekitaldiak egiteko aukera dugu egun".



Olo aholkularia eta beste agintariek txalo
egiten dute monolitoaren inaugurazioa egin
ondoren.

Horren harira, eskerrak eman dizkie biktimen senitartekoei eskaini duten "bizitzaren lezioagatik". Egiaren eta justiziaren aldeko konpromisoagatik, beste biktima batzuei adierazi dieten elkartasunagatik, memoria

aldarrikatzeko egin duten lanagatik eta bizikidetzarako bidea erakustean frogatu duten eskuzabaltasunagatik, "ezinikusi eta gogorrotik gabe, gertatutakoaren memoria erreklamatzeko eta basakeriak eragindako bidegabekeriaren eta atsekabearen iraganeko oroimena aldarrikatuz, bakearen, askatasunaren, demokraziaren eta Giza Eskubideen alde hartu dugun egungo konpromisoa finkatu eta indartzeko", gaineratu du.



Autoritateak eta gonbidatuak, Torrero hilerrian.

Ana Ollok Torreron gorpuzkien bila abiatutako 600 senitarteko baino gehiago bildu zituen exhumazioaren inguruko gertaera nagusiak gogoratu ditu. Baina errealitate historiko horretatik harantzago, familien "kontaketa pertsonalago eta familiarragoaren" garrantzia nabarmendu nahi izan du, gertaturikoa ahortzi ez dadin. "Helburu horrexerri begira antolatu dugu gaurko ekitaldia eta inauguratu dugu gaurko monolitoa. Gertatutakoa gogoratzeko, inoiz ere ahortzi ez dadin, horren bidegabekeria handiaz erail zituzten nafar haien oroimenez eta egia eta memoria aldarrikatu dituzten senitartekoen balioaren omenez. Honela, hurrengo belaunaldiek, iraganaren jakitun izanik, halakorik berriz ere gertatzeko aukerarik ez dagoen gizarte zuzenago, etikoago eta demokratikoago batean bizi ahal izango dira", ziurtatu du.

Ekitaldia

Olo kontseilariarekin batera, ekitaldian izan dira Nafarroako Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznárez, NUKFeko lehendakari Pablo Azcona, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo, Zaragozako alkate Pedro Santistevé eta Sartagudako alkate Paolo Albanese, baita Parlamentuko kideak, biktimen sorterrietako udal ordezkariak, memoria elkarteetako kideak eta biktimen 150 senitarteko inguru ere.

Ekitaldia Nafarroako Ereserkiarekin hasi da, eta ondoren, hitza hartu dute Zaragoza eta Sartagudako alkateek, eraildakoen senitartekoek (Paulino Molinet Martínez, Puri Pérez Jaso eta Arcadio Ibañez) eta Olo kontseilariak.

Jarraian, oroimenezko monolitoa estalgabetzeari ekin diote, auresku baten eta jota baten doinupean. Ekitaldia amaitzeko, bertaratutakoek lore-eskaintza egin dute eskulturaren aurrean.

Omenaldian izandako musika interpretazioen artean, berariaz nabarmendu behar da Zaragozan erail eta ehortzitako pertsona haietako baten biloba eta birbiloba diren Maite Renek eta honen seme Josu Zabalak eskainitako kantua.

Eskultura Javier Unzuereña da. Besoak jasota eta bularrean zulo bat duen gizon burumakura irudikatzen du. Esanahi bikoitza du. Alde batetik, eraildakoak irudikatzen ditu, fusilatu zituzten unean eta besoak jasota, bala batek bihotza zulatzen zien bitartean. Bestetik, hemen gelditu ziren senitartekoen sufrimendua gogoratzen du, atsekabeak urratuta, besoak jasota erostaka, eta galdutako senitartekoaren hutsunea bihotzean dutela.

Hiltzeko izena emanak

1936ko udan, gizon asko behartu zituzten Sanjurjo Tertzioan izena ematera eta altxatuen tropetan borrokatzera, errepresiotik eta balizo heriotzaren mehatxutik ihes egiteko bide gisa.

Horrela, Aragoi, Nafarroa, Errioxa eta Soriako hainbat herritatik bildutako 600 gizon baino gehiago Zaragozara eraman zituzten, eta handik, Almudevarren kokatuta zegoen frontearen lerrora. Hara iritsi ziren irailaren 29an, borrokan sartzeko prest.

Hala ere, altxatutakoen agintari militarrek, desertzio masiboa gertatzeko arriskuaren aurrean, zigor eredugarria ematea erabaki zuten. San Gregorioko eremura itzuli zituzten eta, urriko lehendabiziko egunetan, gizon haietako asko hotz-hotzean erail zituzten, fusilatutakoak guztira zenbat izan ziren zehaztu gabe dagoelarik. Txikizio hartan, 224 nafar fusilatu zituztela kalkulatu da. Haien gorpuak Torreroko hilerrira kamioietan garraiatu eta hobi komun handi batean lurperatu zituzten.

Haien senitartekoek ez zituzten behin ere ahantzi, baina 40 urtez baino gehiagoz itxaron behar izan zuten gorpuzkiak hilobitik ateratzeko aukera lortu arte. Zaragozako Udalaren baimena lortu ondoren, 1979 ko otsailaren 10ean, Nafarroako eta Errioxako 16 herritatik bildutako senitartekoek gorpuzkiak hilobitik ateratzeari ekin zioten. Zenbait egun geroago, 600 pertsona baino gehiago tarteko zituen segizio handi batek gorpuzkiak senitartekoei emateko ekitaldian parte hartu zuen. Horrela, gorpuzkiak jaioterrietara eraman eta Nafarroako herri askotako hilerrietan eraikitako panteoietan duintasun osoz luperatu ahal izan zituzten.

Galería de fotos




Ollo aholkularia, bere hitzaldian zehar.



Arcadio Ibáñez.



Paulino Molinet.



Puri Pérez Jaso.



Paolo Albanese, Sartaguda alkatea.



Pedro Santisteve, Zaragozako alkatea.



Lore eskaintza monolitoaren aurrean.



Publikoa lokalak bete ditu.